

BERTAKO PRODUKTUAREN ASTEKO TAILERRETAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK

- 1.- IRAUPENA: Zozketa hau 2024ko irailaren 26an egingo da.
- 2.- LURRALDE EREMUA: Ekintza honen lurralde eremua Hondarribia udalerria da.
- 3.- DOAKOTASUNA: Tailerretan parte hartzeko zozketetan parte hartzeko ez da beharrezkoa zenbatekorik ordaintzea, denak doakoak dira.
- 4.- PARTE-HARTZAILEAK: Tailer bakoitzari dagokion adin tarteko pertsonak eta 5. puntuari zehaztutako ekintzak egiten dituzten pertsonak hartuko dute parte zozketetan.

Ezin izango dute zozketa honetan parte hartu antolakuntzako langileek, ezta sustapen honekin lotura duen edozein enpresetako langileek, bai ordea beraien familiako pertsonak.

Zehaztutako ekintzak gauzatzeak, oinarri hauek bere osotasunean onartzea dakar.

- 5.- PARTE-HARTZE MEKANIKA: Irailaren 16tik 26ra bitartean tailerretan parte hartu nahi duten pertsonak www.hondarribia.eus webgunean izena eman beharko dute horretarako prestatutako eskaera sistemaren bitartez. Mezua bidaltzean mezu elektronikoa jasoko da parte hartzeko eskaera jaso dela baieztatuz.
- 6.- ZOZKETA: Tailerretarako partehartze eskaerak tailerren aforoa baino gehiago badira oinarri hauen 1. puntuari ezarritako egunean zozketa egingo da. Tailerren aforoa ondokoa izango da:

- ERLE ETA EZTIAREN SEKRETUAK: 12 haur
- LURKA TXOKOLATEA: BABATIK TABLETARA: 10 pertsona
- ABELTZAINZA JASANGARRIA: 15 pertsona
- BARATZA ETXEKO BALKOIAN: 20 haur
- BOTIKA AGROALDEA EZAGUTZEN: 30 pertsona
- GAILETA TAILERRA: 10 haur (6-12 urte bitarteko haurrak)
- FRUTA ETA BARAZKI GOXOKIAK: 10 haur (6-12 urte bitarteko haurrak)
- EUSKAL HERRIKO GAZTAK: 10 pertsona
- TXAKOLINDEGIRA BISITA, MAHATS BILKETA GARAIAN: 15 pertsona
- ESPEZIALITATE KAFEAREN MUNDUA EZAGUTZEN: 10 pertsona
- BERTAKO PRODUKTUEKIN SHOWCOOKING-A: 15 pertsona
- SUKALDEKO AMANTALA KOLORETSUA: 10 haur
- TXANGOIA: ETORRI LANDARE JANGARRIAK EZAGUTZERA: 15 pertsona

- 7.- PARTEHARTZAILEAK: Eskaera egindako tailerrean partehartzea konfirmatzeko emandako helbidera mezu bat bidaliko zaie eta 24-48 orduetan erantzunik jaso ezean telefono zenbakiaren bidez azalduko zaie.

- 8.- TAILERREAN PARTE HARTZEA ONARTZEA: Parte hartzea onartzeko 2 eguneko epea izango dute



komunikazioa jasotzen den momentutik.

Antolatzaileak ezin badira parte hartzaileekin harremanetan jarri haien datuak oker daudelako, edo komunikazioari erantzuten ez diotelako edo parte hartzea onartzen ez dutelako, erakunde antolatzailea zerrendako hurrengo pertsonarekin jarriko da harremanetan.

9.- ERANTZUKIZUNA: Erakunde antolatzaileak ez du erantzukizunik izango halaberrez ekintza honen exekuzioaren ondorioz izandako gorabeheretan.

10.- DATUEN BABESA: Kasua bada, zozketa honen garapenean erabil daitezkeen datu pertsonalak zozketaren garapen egokirako bakarrik erabiliko dira, eta ezin izango dira fitxategi batean gorde edo bestelako helburuetarako erabili.

Edozein kasutan pertsonak erabili ahal izango dituzte haien datuen eskuratze, aldatze, baliogabetze eta aurkaratze eskubideak erakunde antolatzaileari goian aipatutako helbidera zuzendutako eskabide idatziaren bidez.

Erabiltzaileak onartu egiten du eta adostasuna ematen du bere datu pertsonalak argitaratzeko eta hedatzeko (izena; abizenak eta argazkia) tailerretako parte hartzaileak badira.

11.- LEGERIA ETA ESKUMENA: Oinarri hauek arautzen dira espainiar legearen arabera –aldeak beharrezko jurisdikzioaren mende jartzen dira indarrean dagoen araudiaren arabera-

12.- ESKURAGARRITASUNA: Oinarri hauek www.hondarribia.eus-en daude eskuragarri.

13.- IRUDIEN ERABILPENA: Egindako argazki- eta bideo-irudiak Bertako Produktuaren Astea proiektuaren, Hondarribiko Udalaren eta Bidasoa Bizirikaren esku geratuko dira, eta proiektua bere komunikazio-kanaletan bultzatzeko erabili ahal izango dira.

Horrez gain, jakinaren Gaietan gaude irudiak hartzeko zein zabalatzeko orduan Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoa (abenduaren 13ko 15/1999) zein aipatutako legea garatzeko erreglamentuan onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua beteko dituztela.